

Gobernantza 102-18; 102-30; 102-31; 102-33;

EROSKI Taldearen kudeaketa eredua


Taldeko sozietateek EROSKI Koop. E. sozietate nagusiaren gobernu-ildoari jarraitzen diete. EROSKI Koop. E. kontsumo kooperatiba denez, oso izaera berezia du, hain zuzen ere, bai kontsumitzaileek eta bai langileek parte hartzen dutela erakundearen kudeaketa eta erabakietan. Zenbait kontutan gobernantza eredu desberdina duen sozietate bakarra, oso antzekoak eta Taldearekin adostutakoak izan arren, VEGALSA-EROSKI da, EROSKIK % 50eko partaidetza soilik duen sozietatea delako.

EROSKI bi komunitateren artean dago egituratuta: batetik, 1.228.830 Kontsumo Bazkide (2018an baino % 4,96 gehiago, 58.027 bazkide kontsumitzaile berrirekin), beren kontsumitzaile izaeraren kontzientzia berezia izanik kooperatiban inplikatzera erabakitzen dutenak; eta, bestetik, 9.258 Bazkide Langile (EROSKI Kooperatiba Elkarteak 8.019), horietatik 313 2019an sartutako bazkide berriak, ekarpena bai kapitalean eta bai lanean egiten dutenak erakundearekiko konpromiso gisa.

Bi kolektiboak kudeatzeko, bakoitzari bere estatutuak eta araudiak eman dizkiogu, eta horiek arautzen dute bien antolakundea bakoitza bere egitura propioarekin.

EROSKI Koop. E.-aren gobernu korporatiboa, kudeaketa eta ordezkaritza bere Kontseilu Errektoreak ditu bere esku. Estatutu Sozialek ezartzen dituzte Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideen bateraezintasunak eta web korporatiboan kontsulta daitezke (<https://www.eroski.es/gobierno-corporativo>). Era berean, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak zaintzen du egokitasun irizpideak betetzen dituztela eta interes gatazkarik ez dagoela eta kontuan izaten ditu genero aniztasunaren gaiak.

Kontseilu Errektorea




Kideak	Bokalak
Leire Mugerza Gárate Kontsumo Bazkidea (independentea), lehendakaria	Oskar Goitia Zubizarreta Kontsumo Bazkidea (independentea)
Edorta Juaristi Altuna Bazkide langilea, presidenteordea	Nerea Esturo Altube Bazkide langilea
Sonia Ortubai Balanzategui Kontsumo Bazkidea (independentea), idazkaria	Cristina Gainza Salinas Bazkide langilea
Lander Beloki Mendizabal Kontsumo Bazkidea (independentea)	Gonzalo Loro Periañez Kontsumo Bazkidea (independentea)
Iñigo Arias Ajarrista Bazkide langilea	Ana Isabel Zariquiegui Asiaín Bazkide langilea
M.ª Asunción Bastida Sagarzazu Bazkide langilea	Eduardo Herce Susperregui Kontsumo Bazkidea (independentea)


Zuzendaritza Kontseilua



Javier Amézaga Baliabide Zuzendaria	Eva Ugarte Marketin arloko Zuzendaria	Agustín Markaide Lehendakaria	Rosa Carabel Sare Komertzialeko Zuzendaria	Iñigo Eizaguirre Sozietateko Zuzendaria	Beatriz Santos Zuzendari Komertziala
---	---	---	--	---	--



EROSKI, Koop. E.-ko gobernu egitura



Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa

EROSKlren jarduerak eta harremanak zintzoak eta etikoak direla ziurtatzeko, Jarrera Kode bat dugu, gure langileei, bazkideei eta hornitzaileei jakinarazten zaiena, eta gure web korporatiboan interes talde guztientzat eskura dagoena. Zigorrei dagokienez, EROSKI Koop. E-aren Barne Erregimeneko Araudia dugu, Talde osoari aplikatzen zaiena.

Gure erakundearen ospe ona eta sinesgarritasuna zaintzeko, alde batera uzten ditugu gure interesekin bat ez dagoen jarduerak, ezarri ditugun arauak betetzen ditugu, agintari eskudunekin kolaboratzen dugu, erakundearen aktiboan erabilera ona egiten dugu, eta behar ez bezalako ordain, arreta eta opariei uko egiten diegu.

EROSKIk kanal eta komunikabide konfidentzialak ditu Jarrera Kodearekin zerkusia duen edozein kontu kontsultatzeko edo jakinarazteko. Hala, helbide elektronikoa bat, telefono bat eta posta bidez helarazten den inprimakia ditugu. Kontseilu Errektorearen Auditoretza eta Betetze Batzordeak izendatzen du Betetze Bulegoko arduraduna Barne Kontrolleko Organoaren (BKO) bitartez, jakinarazpen eta kontsulta horiek jaso, bideratu, jarraipena egin, informatu eta dokumentatzeko. Auditoretza Batzordea arduratzen da kontsultak eta jakinarazpenak jasotzeko ezarritako prozedurez, eta baliozkotu egiten ditu emandako erantzunak.

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen kontrako borroka 205-1

Ustelkeriaren eta diru zuritzeen arloan egindako jarduketak EROSKI Taldearen *Compliance* politikaren ezarpenean sartzen dira. 2017. urtetik, Arrisku Penalak Prebenitzeko plan bat dugu. Plan horretan prebentzio-politikaren diseinua dago jasota eta ezarri beharreko barne kontrolleko neurriak zehaztuta. Horretarako, Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua prestatu da, honako alderdi hauek jasotzen dituenak:

- Taldeak aldizka aurre egin beharreko arrisku egoeren xehetasunak.
- Delitu arriskua izan dezaketen operazioetarako jardueraren protokoloa ezartzea.
- Delituak prebenitzeko politika eraginkor bat diseinatzeko behar diren gomendioak formulatzea, eta bertan zehaztea Taldeak zein ordezkari- eta kontrol-eredu izango duen honako alderdi hauei dagokienez: gora-beherak jakinaraztea, neurriak ezartzea edo lehendik daudenak hobetzea, eta Administrazio Kontseiluari delituzko jokabideak jakinaraztea.

Compliance arloko betebeharrak betetzeko Barne Kontrolleko Organoa dugu. Organo horrek *Compliance* Bulegoaren laguntza du. Hau arduratzen da Arrisku Penalak Prebenitzeko Plana kudeatzeaz eta ezartzeaz.

Horrez gain, SEPBLANC kapital-zuriketaren prebentzioaren arloko agintaritzak ikuskatzailearen gomendioak eta

kapital-zuriketaren prebentzioaren eta terrorismoaren finantzaketaren arloko politikak ezartzeko betebeharrak betetzeko, 2019an honako hauek egin dira:

1. Kapital-zuriketaren arriskuaren ebaluazioa EROSKI Taldeak egiten duen jarduera ekonomikoaren, merkaturatzen dituen produktuen eta kontratuak egiten dituzten bezeroen ondoriozko benetako arriskuak zehaztuz. Arriskuak, eta arrisku horiei aurre egiteko behar diren neurriak eta politikak Arriskua Autoebalutzeko Txosten batean jaso dira. Eroski Supermerkatu eta Hipermerkatuen eta Viajes EROSKlren negozio-eremuan kokatutako arrisku-eremu nagusiak bezeroek salmenta-puntuetan denbora-epe laburretan, ohikotasunez eta etengabe egindako erosketak izan dira. Erosketa bakoitzak ez du gainditzen 2.500 euroko zenbatekoa eskudirutan, ondoren produktua birsaltzeko; eta Garapeneko negozio-eremuan arriskurik handiena atzeriko bezeroekin aktibo higiezinak saltzeko transakzioak dira.

2. Ordezkaritza bat izendatzea SEPBLAC-en aurrean.

3. Barne eskuliburua prestatzea kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko arloan, beste batzuen artean, kapital-zuriketa prebenitzeko Taldean ezarri behar diren politika eta prozedura egokiak jasotzen dituenak (behar bezalako arreta, informazioa, dokumentuen kontserbazioa, arriskuen kudeaketa, eragiketa susmagarriak detektatzea, negozioaren arriskuaren arloan prestatzeko prestakuntza pertsonaleko plan bat ezartzea, etab.).

Inpaktuen eta arriskuen kudeaketa 102-15; 102-30; 02-31

EROSKI Koop. E-aren Auditoretza eta Betetze Batzordeari eta Barne Kontrolerako Organoari dagokie, batez ere, ekonomia-aren, ingurumenaren eta gizartearen arloko inpaktuen, arriskuen eta aukeren identifikazioa, ebaluazioa eta kudeaketa. Haiek arduratzen dira Kontseilu Errektorea aldizka informatzeaz zein organori dagokion, azken batean, erakundea mehatxatu dezaketen arrisku guztiak kudeatzeari buruzko barne-arauak betetzen direla zaintzea.

Horretaz gain, Arrisku Penalak Prebenitzeko Plana dugu. Plana urtero berrikusten da, eta bertan identifikatzen da zein diren EROSKI Taldearen jardueretan egiteko probabilitaterik handiena duten delituak. Plan honek EROSKI Talde osoa hartzen du (Forum Sport eta Viajes EROSKI 2019an sartu dira), bere plan propioa duen VEGALSA-EROSKI izan ezik.

Planean ageri dira arrisku handiena duten sailak edo eremuak, zer jarduerak eragingo luketen araua haustea, zer neurri hartu behar dituzten arrisku taldeek, eta hura ikuskatzeko eta egiaztatzeko erabiliko diren monitorizazio prozesuak. Baliabide naturalen eta ingurumenaren kontrako delituei dagokienez, EROSKlren sail bat baino gehiagok egin ditzaketen hainbat arrisku-jarduerak aurreikusten dira, eta baita haiei aurre hartzeko neurriak eta ezarritako dauden

Gure Kode Etikoa

Gure Kode etikoa eguneroko kudeaketaren ardatza da, eta praktikan bat dator honako jardueraren-terro hauekin:

Zuzendaritzaren

helburu nagusien artean kudeaketa etikoa txertatzea.

Bere gain hartzea eta laguntzea

legerian jasotako gizarte erantzukizuneko mailak etengabe hobetzen.

Adierazleen bitartez,

erakundearen jokabide etikoa egiaztatzea, hobekuntza behar duten jardueraren arloak zehazteko.

Kudeaketa etikoa

hobetzeko helburuak finkatzea eta hori lortzeko planak prestatzea eta onartzea.

Kudeaketa sistemaren

aplikazioan parte hartzen duten pertsona guztiak behar bezala formatzea eta informatzea eta gizarte erantzukizuneko jardunbide egokiak sustatzea.

Hornitzaileak eta azpikontratatuak

Kode Etikoa buruz behar bezala informatzea eta gizarte erantzukizunari buruz jakintza transferitzeko mekanismoak sortzea.

Kanpoko

alderdi interesdunei (kontsumitzaileak, jabeakideen erkidegoak, Administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, etab.) erantzutea, gure gizarte-jokaerari buruzko interesa azaltzen badute.

Gizarteari

gure Kode Etikoa, haren arauak eta bere helburuen betetze maila modu ireki eta eraginkorrean jakinaraztea.

kontrol espezifikoak ere, funtsean, Taldeko organoek elkarri berri emateko sistemak. Gainera, ingurumen erantzukizuneko poliza bat dugu. Polizak urteko muga erantsi bat duen 10 milioi euroko estaldura guztietarako eta 5 milioi euroko muga bat ezbehar bakoitzeko estaldura guztietarako.

Prebentzio testuinguru horretan, Kontseilu Errektoreak sakon aztertzen ditu, urtero, korporazioaren arriskuak oro har. EROSKlren webgunean eskura dagoen Gobernu korporatiboaren urteko txostenean (E atala), arriskuei buruzko informazioa dator (arriskuak kudeatzeko sistemaren irismena, arriskuak kudeatzeko sistemaz arduratzen diren organoak, ekitaldian gauzatutako arriskuak, etab.).

VEGALSA-EROSKIren kudeaketa eredua

Lehen adierazi den bezala, Vegonsa Agrupación Alimentaria, S.A. (VEGALSA), EROSKIren % 50eko partaidetza soilik duen sozietatea izanik, zenbait kontutan gobernantza eredu desberdina du, oso antzekoak eta Taldearekin adostutakoak izan arren.

Vegonsa Agrupación Alimentaria, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko presidentea Javier Amezaga da, EROSKIko Errekurtsoen zuzendari nagusia. Administrazio Kontseilua da VEGALSA-EROSKIIn erabakiak hartzeko organo gorena, eta hilero egiten du ohiko bilera. Baimena ematen du saltoki komertzialak ireki, itxi eta lekualdatzeko, kopuru batetik gorako inbertsioak egiteko (araudia), zuzendaritza taldean aldaketak egiteko, eta abar, eta urtero jarraibide batzuk ezartzen ditu Kudeaketa Plana eratzeko (helburu kualitatiboak) eta urteko aurrekontu ekonomikoak prestatzeko.

Administrazio Kontseiluak, bere eraketako testuan, Zuzendaritza Nagusiari uzten dizkio enpresaren funtzionamendu onaren mesedetan zuzendaritza-kargu horri dagozkion erabakiak, hari laga ezin dizkionak izan ezik. Halaber, Administrazio Kontseiluak zenbait zuzendari ahaldundu ditu eginkizun jakin batzuetarako.

Joaquin Gonzalez da VEGALSA-EROSKIko zuzendari nagusia, eta hamabostean behin biltzen du Zuzendaritza Batzardea gainerako zuzendaritzetako arduradunekin, sozietatearentzako garrantzikoak diren gaiak lantzeko, bai iragarrita zeudenak eta bai jardueran zehar sortu direnak, erabakiak hartzeko eta jarraipena egiteko.

Barne Kontseiluak zuzendari nagusiak Administrazio Kontseiluan aurkezturiko proiektuak eta gaiak erabakitzen ditu. Inbertsio Batzardeak, bestalde, inbertsioak enpresaren helburuetara nola egokitu eta errentagarritasun edo efizientzia Planak aztertzen ditu.

Kudeaketa etikoa eta ardurazkoa VEGALSA-EROSKIIn

VEGALSA-EROSKIIn beste organo bat ere badugu, Betetze Batzardea: Kode Etikoa, politikak eta prozedurak betetzen direla kontrolatzen du. Hiru kide ditu: Pertsonen Saileko zuzendaria, Eremu Korporatiboko zuzendaria eta kanpo abokatua, Sail Juridikoko Betetze Atalaren babes funtzionalarekin.

Horretaz gain, posta elektronikoa, telefono eta inprimaki bidezko salaketa-kanala ere badugu, delituen bat egin izanaren edo Kode Etikoa edo betetze politiketan ezarritakoa urratu izanaren zantzuak edo susmoak dituzten langileen salaketak jasotzeko eta horretarako izendatutako barne erakundeari jakinarazteko.

VEGALSA-EROSKIIn sei Betetze Politika ditugu: pribatutasuna eta konfidentzaltasuna; ustelkeriaren aurkakoa; in-

teres gatazkak; erosketak eta kontratazioak; dohaintzak eta babesleztak; eta mesedeak eta opariak. Azken arlo horri dagokionez, 2019an, Oparien eta Mesedeen Prozedura eta Erregistroa onartu eta argitaratu da.

Inpaktuen eta arriskuen kudeaketa

Enpresaren barne kontrolaren esparruan, VEGALSA-EROSKIIn arriskuak kudeatzeko bi sistema ezarri ditugu: Arrisku Korporatiboen Kudeaketa Sistema eta Delitu eta Arrisku Penalak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Programa (Compliance). Era independentean funtzionatzen dute, baina paraleloki eta koordinatuta. Kudeaketarako eta kontrolerako egitura propioa dute, horretarako eraturiko organo banarekin, baina erantzukizun gorena eta azken erabakia Administrazio Kontseiluarenak dira. Organo horiek dira, batetik, Arriskuen Analisisirako Batzardea (AAB), arrisku korporatiboez arduratzen dena, eta bestetik, Betetze Batzardea, arrisku penalak kudeatzen dituena.

Kasu bakoitzean markaturiko maiztasunarekin, zenbait gai eramaten dira Administrazio Kontseilura eta Arrisku Korporatiboen Kudeaketa Sistemari edo Betetze Planean sartzeko gaiak aurkeztu eta baloratzen dira, eta iritzia ematen dira jakineko inpaktuak salbuesteari buruz eta informatu beharreko maiztasunari buruz. Administrazio Kontseiluak baliozkotzat jo ditu bi sistemen eraketa eta kudeaketa. Era berean, Administrazio Kontseiluak eginbide-prozesuek jarraitu beharreko arauak eta metodologia onartu ditu. Delituak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Eskuliburuan erabakiak hartzeko protokolo bat sartzen da. Protokolo hori kontuan hartu beharko dute sozietatearen eraketan erabakitze ahalmena eta funtzioak dituzten organo guztiek.

Arriskuen Analisisirako Batzardeak urtean bitan berri ematen dio Administrazio Kontseiluari, eta Betetze Batzardeak urtean behin, arriskuen deskargua eginez eta intereseko gaien berri emanez. Sail Juridikoaren Betetze Atalak bi deskargu egiten ditu urtean, Betetze Batzardearen aurretik, eta ikusitako anomalia guztien berri ematen dio horri.

Vegonsa Agrupación Alimentaria, S.A.-ren Administrazio Kontseilua

- Javier Amezaga (presidentea)
- Rosa M.ª Carabel (bokala)
- Jorge González (bokala)
- José Alonso (bokala)



VEGALSA-EROSKIren Kode Etikoa

Kode Etikoa jasota daude gure jardueraren alor guztietan aplikatzen ditugun printzipio etikoak eta balioak, eta horren osagarri dira Betetze Politikak eta horiei dagozkien prozedurak.

- 1 Legezotasuna:** Legea eta barne araudia zorrotz betetzea.
- 2 Konpromisoa** pertsonen osasunarekin eta segurtasunarekin.
- 3 Errespeturik handiena,** ekitatea eta duintasuna langile, kolaboratzaile, bazkide eta lehiakide guztientzat eta enpresari loturiko gainerakoentzat.
- 4 Irizpide objektiboak** langileak hautatu eta sustatzeko orduan.
- 5 Gardentasuna,** objektibotasuna eta profesionaltasuna jarduera guztietan eta interes taldeekiko harremanetan.
- 6 Zentzuko erabilera** eta egokia baliabide guztiekin, Sozietatearen aktiboak zainduz.
- 7 Intimitatea, datuen babesa** eta isilpeko informazioa.
- 8 Konpromisoa** ingurumenarekin.